

# TOKIKO AUTONOMIAREN EUROPAKO GUTUNA



**EUDEL**



# **TOKIKO AUTONOMIAREN EUROPAKO GUTUNA**

*Tokiko Autonomiaren Europako Gutuna.  
Estrasburgon egina, 1985eko urriaren 15ean  
«BOE», 47 zk., 1989ko otsailaren 24koa*

## **TOKIKO AUTONOMIAREN EUROPAKO GUTUNA HITZAURREA**

Gutun hau sinatzen duten Europako Kontseiluko Estatu kideek, aintzat hartuz Europako Kontseiluaren helburua kideen arteko lotura estuagoa lortzea dela, guztien ondarea diren idealak eta printzipioak babestu eta sustatzeko;

Kontuan hartuz xede hori gauzatzeko bideetako bat esparru administratiboan akordioak egitea dela;

Kontuan hartuz toki-erakundeak erregimen demokratikoen oinarri nagusietakoak direla;

Kontuan hartuz herritarrek gai publikoen kudeaketan parte hartzeko duten eskubidea Europako Kontseiluko Estatu kide guztien printzipio demokratikoetako bat dela;

Tokiko maila horretan eskubide hori modu zuzenagoan baliatu ahal delako uste osoa izanda;

Eskumen eraginkorrak dituzten toki-erakundeak egoteak administrazio eraginkorra eta herritarrengandik gertu dagoena ahalbidetzen duelako uste osoa izanda;

Europako herrialdeetan toki-autonomia babestea eta indartzea demokrazia-printzipioan eta boterearen deszentralizazio-printzipioan

oinarritutako Europa eraikitzeko funtsezko ekarpenak direla jakinda;

Baieztatuz horrek demokratikoki osatutako organo erabakitzaileak dituzten toki-erakundeak egotea dakarrela, eta, era berean, erakundeok autonomia handia dutela eskumenei, horiek baliatzeko modalitateei eta egitekoa betetzeko beharrezko bitartekoei dagokienez,

Honakoa adostu dute:

## **LEHENENGO ZATIA**

### **1. artikulua.**

Alderdi kontratugileek azpian adierazitako kontratuei lotuta geratzeko konpromisoa hartzen dute, gutun honen 12. artikuluan agindutako moduan eta baldintzetan.

### **2. artikulua.** *Toki-autonomiaren konstituzio- eta lege-oinarria.*

Toki-autonomiaren printzipioa barne-legerian eta, ahal bada, Konstituzioan aitortuta egon behar da.

### **3. artikulua.** *Toki-autonomia kontzeptua.*

1. Arazo publikoen zati garrantzitsu bat ordenatu eta kudeatzeko toki-erakundeek duten eskubidetzat eta gaitasun efektibotzat hartzen da toki-autonomia, betiere, legearen barruan, euren erantzukizunpean eta euren biztanleen mesedetan.

2. Eskubide hori sufragio libre, sekretu, zuzeneko eta unibertsalaren bidez hautatutako kideek osatutako biltzar edo kontseiluen bidez egikaritzen da, eta organo betearazle erantzuleak balia ditzakete horietarako. Xedapen honek ez die kalterik egingo auzotarren biltzarrei, erreferendumari edo herritarrek zuzenean parte hartzeko duten beste ezein moduri, legeak horrelakorik baimentzen duen tokietan.

### **4. artikulua.** *Toki-autonomiaren irismena.*

1. Toki-erakundeen oinarrizko eskumenak Konstituzioan edo legean finkatu behar dira. Hala ere, xedapen honek ez du eragozten toki-erakundeei xede espezifikoetarako eskumenak esleitzea, legeari jarraituz.

2. Toki-erakundeek, betiere, legearen barruan, askatasun osoa dute euren ekimena egikaritzeko

euren eskumenetik baztertuta ez dauden edo beste agintaritzak bati esleituta ez dauden alor guztietan.

3. Eskumen publikoen egikaritzeak, oro har, herritarrarengandik hurbilen dauden agintaritzak hartu behar ditu eraginpean. Eskumen bat beste agintaritzak bati esleitzeko orduan, zereginaren handitasuna edo izaera edo eraginkortasuneko edo ekonomiako premiak hartu behar ditu kontuan.

4. Toki-erakundeen ardurapean jarritako eskumeneak, oro har, osoak eta erabatekoak izan behar dute. Beste edozein agintaritzak, zentrala ala eskualdekoa izan, ezin ditu eskumen horiek zalantzan jarri edo mugatu, legearen barruan ez bada.

5. Agintaritzak zentral batek edo eskualdeko agintaritzak batek ahalmenak eskuordetuz gero, toki-erakundeek, ahal den neurrian, askatasuna izan behar dute ahalmenak tokiko baldintzetara egokituz baliatzeko.

6. Toki-erakundeei, ahal den neurrian, garaiz eta behar bezala kontsultatu behar zaie zuzenean eragiten dieten arazo guztietarako plangintza- eta erabakitze-prozesuetan.



**5. artikulua.** *Toki-erakundeen lurralde-mugak babestea.*

Tokiko lurralde-mugak aldatzeko, aldez aurretik horrek eragiten dien tokiko taldeei kontsultatu behar zaie erreferendum bidez, legeriak baimentzen duen lekuetan.

**6. artikulua.** *Administrazioak eta baliabideak toki-erakundeen betebeharretara egokitzea.*

1. Legeak sortutako xedapen orokorragoei kalterik egin gabe, toki-erakundeek izan nahi dituzten administrazio-egiturak euren kabuz ezartzeko ahalmena izan behar dute, euren behar espezifikoetara egokitzeko eta kudeaketa eraginkorra ahalbidetzeko helburuarekin.

2. Toki-erakundeen langileen estatutuak kalitatezko hautaketa ahalbidetu behar du, hain zuzen, merezimendu- eta gaitasun-printzipioetan oinarritutakoa. Xede horretarako, estatutuak prestakuntza, ordainsari eta karrera-aukeren baldintza egokiak bete izan ditu.

**7. artikulua.** *Tokiko mailan erantzukizunak betetzeko baldintzak.*

1. Toki-ordezkarien estatutuak horien mandatua askatasunez betetzea bermatu behar du.
2. Mandatua betetzeko sortu diren gastuak ordaintzeko zenbateko egokia ordaintzea ahalbidetu behar du. Gainera, hala izanez gero, galdutako irabaziak ordaintzea edo egindako lana eta kasuan kasuko estaldura soziala ordaintzea ahalbidetu behar du.
3. Tokiko ordezkariaren mandatuarekin bateraezinak diren funtzio eta jarduerak legeek eta oinarrizko printzipio juridikoek bakarrik ezar ditzakete.

**8. artikulua.** *Toki-erakundeen ekintzen kontrol administratiboa.*

1. Toki-erakundeen kontrol administratiboa Konstituzioak edo legeak ezarritako moduan eta kasuetan bakarrik egin daiteke.
2. Toki-erakundeen ekintzen kontrol administratiboen helburu bakarra, oro har, legeak eta konstituzio-printzipioak betetzen direla ziurtatzea izan behar da. Hala ere, kontrol hori

aukera-kontrola ere izan ahalko da. Hori goragoko mailako agintaritzek egingo dute, eta, hain zuzen, toki-erakundeei betearazi ditzaten eskuordetutako eskumenen kontrola egingo dute.

3. Toki-erakundeen kontrol administratiboa egiteko proportzionaltasuna mantendu behar da hauexen artean: kontrolerako agintaritzaren esku-hartzearen hedaduraren eta babestu nahi dituen interesen garrantziaren artean.

## **9. artikulua.** *Toki-erakundeen finantza-baliabideak.*

1. Politika ekonomiko nazionalaren esparruan, toki-erakundeek eskubidea dute baliabide nahikoak izateko, eta horiek askatasun osoz erabil ditzakete eskumenak baliatzeko.

2. Toki-erakundeen finantza-baliabideak Konstituzioan edo legean ezarritako eskumeneziko proportzionalak izan behar dira.

3. Toki-erakundeen finantza-baliabideen zati bat gutxienez ondareen eta tokiko tributuen diru-sarreretatik etorri behar da, hain zuzen, legeari jarraituz, kuota edo tasa ezartzeko ahalmena dutenetatik.

4. Toki-erakundeek dituzten baliabideek oinarriztat dituzten finantza-sistemak, ahal den neurrian eta praktikan, eskumenak betetzeko kostuen bilakaera erreala ahalbidetzeko bezain dibertsifikatuak eta ebolutiboak izan behar dira.

5. Finantzei dagokienez ahulenak diren toki-erakundeen babesak honako hau eskatzen du: finantza-konpentsazioko prozedurak edo balizko finantziazio-iturrien eta dagozkien kargen banaketa desberdinaren eraginak zuzentzera bideratutako neurri baliokideak hartzea. Prozedura edo neurri horiek ez dute toki-erakundeen aukera-askatasuna murriztu behar euren eskumenen esparruan.

6. Toki-erakundeei forma egokien arabera egin behar zaizkie kontsultak, eta, hain zuzen, birbanatutako baliabideak haiei esleitzeko modalitatei buruz egin behar zaizkie kontsultak.

7. Ahal den neurrian, toki-erakundeei emandako diru-laguntzak ez dira proiektu espezifikoak finantzatzeko bideratu behar. Diru-laguntzak emateak ezingo dio kalterik egin toki-erakundeen politikaren oinarrizko askatasunari, haien eskumenen esparruan.

8. Inbertsio-gastuak finantzatzeko helburuarekin, legeari jarraituz, toki-erakundeek kapital-merkatu nazionalerako sarbidea izan behar dute.

**10. artikulua.** *Toki-erakundeen elkartzeko eskubidea.*

1. Eskumenak baliatzeko, toki-erakundeek beste toki-erakunde batzuekin lankidetzan aritzeko eta elkartzeko eskubidea dute, interes komuneko zereginak egiteko.

2. Estatuak toki-erakundeei aitortu behar diete haien interes komunak babesteko eta sustatzeko elkarte batean sartzeko eskubidea. Halaber, toki-erakundeen nazioarteko elkarte batean sartzeko eskubidea ere aitortu behar diete.

3. Legeak ezarritako baldintzetan, toki-erakundeak beste estatu batzuetako erakundeekin jardun daitezke lankidetzan.

**11. artikulua.** *Toki-autonomiaren legezko babesa.*

Toki-erakundeek jurisdikzio-errekurtsorako bidea izan behar dute, eskumenak askatasunez baliatzen dituztela egiaztatzeko, baita Konstituzioan edo

barne-legerian jasotako toki-autonomiaren printzipioak errespetatzen direla egiaztatzeko ere.

## **BIGARREN ZATIA**

### **Zenbait xedapen**

#### **12. artikulua.** *Konpromisoak.*

1. Alderdi kontratugileek konpromisoa hartzen dute gutunaren hogeit hamar atali gutxienez lotuta geratzeko; hogeit hamar horietatik, hamar atali gutxienez honako hauen artean hautatu beharko dira:

2. artikulua.

3. artikulua, 1. eta 2. paragrafoak.

4. artikulua, 1., 2. eta 4. paragrafoak.

5. artikulua.

7. artikulua, 1. paragrafoa.

8. artikulua, 2. paragrafoa.

9. artikulua, 1., 2. eta 3. paragrafoak.

10. artikulua, 1. paragrafoa.

11. artikulua.

2. Estatu kontratugile bakoitzak, berrespen-, onarpen- eta onespentresnak gordailutzean,

Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiari hautatutako lerroaldean berri emango dio, artikulua honen lehenengo lerroaldean xedatutakoari jarraituz.

3. Alderdi kontratugile bakoitzak, ondorengo edozein unetan, honakoa adierazi ahalko du Idazkari Nagusiari zuzendutako jakinarazpenaren bidez: artikulua honen lehenengo paragrafoko xedapenei jarraituz, oraindik onartu ez duen gutun honetako beste edozein paragrafori lotuta egongo dela. Geroko konpromiso horiek jakinarazpena egiten duen alderdiaren berrespenaren, onarpenaren eta onespeneren zatitzat joko dira. Gainera, horien ondore berberak izango dituzte, Idazkari Nagusiak jakinarazpena jaso, ondorengo hiruhilekoa bukatu eta hurrengo hilaren lehenengo egunean.

### **13. artikulua.** *Gutuna aplikatzen zaien erakundeak.*

Gutun honetako toki-autonomiaren printzipioak alderdi kontratugilearen lurraldean dauden toki-erakundearen kategoria guztiei aplikatzen zaizkie. Hala ere, alderdi kontratugile bakoitzak, gutunaren berrespen-, onarpen- eta onespeneren-

gordailutzeko unean, honakoa egin dezake: aplikazio-esparrua mugatu nahi dien toki- eta lurralde-erakundeak edo aplikazio-esparrutik kanpo utzi nahi dituenak hautatu. Era berean, toki- edo lurralde-erakundeen beste kategoria batzuk sar ditzake gutunaren aplikazio-esparruan, Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiari zuzendutako idatzizko ondorengo jakinarazpen baten bidez.

#### **14. artikulua.** *Informazioa jakinaraztea.*

Alderdi kontratugile bakoitzak Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiari jakinaraziko dio legeria-xedapenei buruzko eta gutun honen baldintzetara egokitze hartutako beste neurri batzuei buruzko informazio egokia.

## **HIRUGARREN ZATIA**

#### **15. artikulua.** *Sinatzea, berrestea eta indarrean sartzea.*

1. Gutun hau Europako Kontseiluko Estatu kide guztiek sinatu ahalko dute. Berretsi, onartu edo onetsi egingo dute. Berrespen-, onarpen- eta



onespen-agiriak Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiari aurkeztuko zaizkio.

2. Gutuna indarrean sartuko da Europako Kontseiluko lau Estatu kidek gutunari lotuta geratzeko adostasuna adierazten dutenetik ondorengo hiruhilekoa bukatu eta hurrengo hilaren lehenengo egunean, aurreko paragrafoan xedatutakoari jarraituz.

3. Gutunari lotuta geratzeko adostasuna geroago adierazten duten beste Estatu kideei dagokienez, gutuna indarrean sartuko da berrespen-, onarpen- eta onespren-tresnak gordailutzeko egunetik ondorengo hiruhilekoa bukatu eta hurrengo hilaren lehenengo egunean.

## **16. artikulua.** *Lurralde-klausula.*

1. Estatu guztiek hautatu ahalko dute zein lurralderi aplikatuko zaion gutuna, sinatzen duten unean edo berrespen-, onarpen-, onespren- eta atxikipen-tresna gordailutzen duten unean.

2. Ondorengo edozein unetan, Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiari zuzendutako adierazpenaren bidez, Estatu bakoitzak gutunaren aplikazioa zabaltzea erabaki dezake, hain zuzen,

adierazpen horretan aipatutako beste edozein lurraldetara. Lurralde horri dagokionez, gutuna indarrean sartuko da Idazkari Nagusiak jakinarazpena jaso, ondorengo hiruhilekoa bukatu eta hurrengo hilaren lehenengo egunean.

3. Aurreko bi paragrafoei jarraituz egindako adierazpenak baztertu ahal izango dira, adierazpenean hautatutako edozein lurralderi dagokionez, Idazkari Nagusiari zuzendutako jakinarazpen baten bidez. Baztertze horrek ondorioak izango ditu Idazkari Nagusiak adierazpena jaso, ondorengo sei hilekoa bukatu eta hurrengo hilaren lehenengo egunean.

## **17. artikulua. *Salaketa.***

1. Alderdi kontratugileek ezingo dute gutuna salatu hori indarrean sartzeko denetik bost urte igaro baino lehen. Sei hilabeteko aurrerapenarekin jakinaraziko zaio Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiari. Salaketa horrek ez dio gutunaren baliozkotasunari eragiten alderdi kontratugileei dagokienez, horiek lau baino gutxiago ez badira.

2. Alderdi kontratugile bakoitzak, aurreko paragrafoan aipatutako xedapenei jarraituz,

onartutako gutunaren lehenengo zatiko edozein paragrafo salatu dezake. Horretarako, alderdi kontratugile hau betetzera behartuta dagoen paragrafoen zenbakia eta kategoria bat etorri behar dira 12. artikuluko 1. paragrafoko xedapenekin. Paragrafo baten salaketaren ondorioz 12. artikuluko 1. paragrafoko xedapenekin bat ez datozen alderdi kontratugileen kasuan, gutuna berdin salatu dutela joko da.

### **18. artikulua.** *Jakinarazpena.*

Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiak honakoak jakinaraziko dizkie Estatu kideei:

- a) Sinadura guztiak.
- b) Berrespen-, onarpen- eta onespentresnen gordailutzeak.
- c) Gutuna indarrean sartzeko egunak, gutunaren 15. artikuluari jarraituz.
- d) 12. artikuluko 2. eta 3. paragrafoen xedapenak aplikatuz jasotako jakinarazpenak.
- d) 13. artikuluko xedapenak aplikatuz jasotako jakinarazpenak.

f) Gutunari buruzko beste edozein egintza, jakinarazpen edo komunikazio.

Horren guztiaren lekukotza gisa, behean sinatzen dutenek, behar bezala baimenduta, gutun hau sinatu dute.

Estrasburgon egina, 1985eko urriaren 15ean, frantsesez eta ingelesez, bi testuak bata bestea bezain jatorrizkoak izanik, kopia bakar batean, zeina Europako Kontseiluaren Artxiboetan gordailutuko baita. Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiak haren kopia ziurtatu bana helaraziko die Europako Kontseiluko Estatu kideei.

## **LOTUTAKO INFORMAZIOA**

Gutuna 1988ko irailaren 1ean sartu zen indarrean modu orokorrean, eta, Espainian, 1989ko martxoaren 1ean, gutunaren 15.3 artikuluekin bat etorritz.